



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
195. zkia . 2007ko otsaila

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

UMOREA EZ DA FALTA !

Argazkia: Xabier Sagarzazu

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Alfonso Pey Gómez

16-17. Inauteriak

20-21. Bordari eta Satarka

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Urtarrileko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea • Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behe

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Euskararen Aholku Batzordeak bilera orokorra egin du



Euskararen Aholku Batzordeak otsailaren 15ean egin zuen urteko lehen bilera orokorra. Batzorde hau herriko ikastetxe, elkarte eta taldeetako ordezkariak osatuta dago, guztira 30 partaide ditu, eta horien iritzia, aholkuak eta ekarpenak beharrezkoak dira Euskara Zerbitzuak urteroko Kudeaketa Planak aurrera eraman ahal izateko, plan horretan sartzen baitira Udalak udalerrian euskararen erabilera bultzatzeko antolatzen dituen ekintza guztiak.

Aholku Batzordeak urtean bi bilera orokor egiten ditu, batik bat aurreko urteko Kudeaketa Planaren jarraipena egiteko eta hurrengo urtekoa prestatzeko. Hala ere, Aholku Batzorde horretako zenbait lan-talde, adibidez Hezkuntza Taldea hamabostero edo beharren arabera biltzen da, berari dagozkion gaiak aztertzeko.

Otsailaren 15eko bilera orokorrean aztertu zen 2006ko Kudeaketa Planaren garapena, eta aurreikusitako ekintza gehienak burutzeaz gainera, aurreikusi gabeko berri batzuk ere abian jarri direla frogatu zen, besteak beste, Kanean Kantuz eta Mintzalaguna izeneko programak eta Arrantza Munduko Esamoldeen bilketa.

Bilera horretan bertan, 2007ko Kudeaketa Plana prestatzeari ekin zitzaion, eta horretarako, bertaratutakoen ekarpenak jaso ziren. Proposatutako ekintza berrien artean, aipagarriena, etorkinei begira antolatu nahi den euskalduntze kanpaina izan zen.

Dena dela, Euskararen Aholku Batzorde hau kide jakin batzuek osatzen badute ere, herritar guztien aholkuak eta ekarpenak hartzeko prest dago, beraz partaide ez izan arren edonoren ideiak pozik jasoko ditu.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udal

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK OTSAILEAN ETA MARTXOAN

- 25- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso kalea, z/g.....943 642191
- 4- IRAOLA San Pedro, 5.....943 641027
- 11- SAGRARIO FIZ Sokoa Merkatalgunea.....943 644316
- 18- ALMAJANO Mendelu, 26.....943 640068
- 25- ALAMEDA Harresilanda, 9.....943 645798

TXANDAKO OKINDEGIAK OTSAILEAN ETA MARTXOAN

- 25- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212
- 4- ARRATIBEL Mendelu auzoan943 641975
- 11- GARMENDIA Portuan943 641136
- 18- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212
- 25- ARRATIBEL Mendelu auzoan943 641975

Udaletxeko lau lanpostu betetzeko deia


Hondarribiko Udalak lau lanpostu betetzeko deialdia egin du. Hain zuzen ere, Arkitekto Tekniko bat, Biztanlearen Arreta Zerbitzuko (BAZ) arduradun bat, Gizarte Langile bat eta Itzultzaile bat dira deialdiaren xede.

Deialdia pasatako urtarilaren 11an agertu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean. Bertan jasotzen dira bete beharreko baldintza, epeak, aurkeztu beharreko dokumentazioa baita lan baldintzak ere.

Arkitekto Tekniko eta Gizarte Langilearen deialdiak irekiak dira, eta Biztanlearen Arreta Zerbitzuko arduradun eta Itzultzailearenak aldiz Udaletxeko funtzionarioei zuzendutakoak dira.

Gipuzkoako Buletin Ofizialean agertu ondoren, hurrengo urratsa Estatuko Buletinean agertzea da. Hortik aurrera, 20 egunetako epea zabaltzen da eskaintzak aurkezteko. Ondoren, onartutako eta kaleratutakoen zerrendak argitaratuko dira. Udalak, gutxi gora behera bi hilabetetan prozesua amaituta egotea espero du.

Informazio gehiagorako, gehitzen ditugun PDF dokumentuak kontsultatu, edota www.gipuzkoa.net webgunera jo, 2007ko urtarilaren 11ko buletinera hain zuzen ere.



Lau udal lanpostu betetzeko deialdia egin da

www.hondarribia.org web guneak 112.301 bisita jaso ditu 2006 urtean



Gorakada egin du Udalaren web guneari bisita kopuruak

Hondarribiko Udaleko web gunearen erabilera, www.hondarribia.org, gorantz egiten du etengabe. 2006an denetara 112.301 bisita izan zituen, hilero 9.358. Horrek esan nahi du egunero 311 bisita egin zirela, baina datuak aztertu ondoren, hiletik hilera gora egin zuela ikus dezakegu. 2006ko urtarilean 186 bisita egiten ziren egunero, eta abenduan ordean egunero 515 tera heldu ziren.

2007 urte honetan datuak gero eta hobeak dira, eta 2006an lortutako emaitzak soberan hobetu egingo direla dirudi. Soilik hiru astetan, urtarilaren 1etik 21era, 10.704 bisita egon dira. Lehen astean 3.459 aldiz ireki zen web gunea, urtarilaren 5ean 590 aldiz. Bigarren astean bisitak 3.459 izan ziren, egunero 494, urtarilaren 12an 577ra heldu zirelarik. Urtarileko hirugarren astean azkenik, 3.608 izan ziren, hau da, 515 egunero, hilaren 19an 663 bisita burutu zirelarik.

Aitor Kerejeta alkateordeak esan zuenez, "Udalaren web gunea baliabide egoki bat da, sendotu eta egonkortu egin dena. Tresna erraz eta baliagarri bat da, bereziki Udalak informazioa emateko eta hiritarrak hura jaso eta egokiak iruditzen zaizkion iradokizun eta kexak aurkeztu ahal izateko".

Azkenik, zinegotziak, web orriko gune berrietatik bisitatuene-takoa berriena izan zela esan zuen.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Remigio Mendibururen omenezko astea aurkeztu da

Otsaileko azken astean "Remigio Mendibururen Astea" ospatuko da, eskultore hondarribiarra jaio zenetik 75 urte beteko ziratekeelako bizirik balego. Udaletxeko Areto Nagusian burutu zen aurkezpen ekitaldian izan ziren Lehen Alkateorde den Aitor Kerejeta eta Kultura Zinegotzia den Xabier Gezala Udalaren ordezkari moduan, Hutsune Mendiburu, Remigio Mendibururen alaba eta Leire Macazaga, Topaketen koordinatzailea eta Remigio Mendibururi buruzko doktorego tesia egiteko Eusko Jaurlaritzako bekaren onuraduna.

Hutsune Mendiburuk, ekitaldian familiaren ordezkari moduan, Udala eskertu nahi izan zuen. "Laguntza handia eskaini nahi izan digu gure aitaren obra herrian gera dadin. Oso pozik gaude, aste honetarako egindako lana oso ona eta jendea animatu nahi nuke ekitaldietara etor dadin, pena mereziko du eta".

Leire Macazaga, topaketen koordinatzaileak, Remigio Mendibururen Astea osatuko duten ekitaldiak azaldu zituen, Udaletxeko Areto Nagusian garatuko direnak. "Astelehenean 19.30etan Xabier Saenz de Gorbearen hitzaldia egongo da, EHUko Arte Ederretako fakultateko irakaslea eta Remigio Mendibururen Obraren katalogazioa egin duena. Asteartean ordu berean, Pedro Manterolaren hitzaldia egongo da, Jorge Oteiza Museo Fundazioko zuzendari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko izen bereko katedraren zuzendaria dena".

Gainera, asteazkenean, 'Nortasuna' filmea eta 'Dunbots' laburmetraia emango dira, ondoren mahainguru bat Pedro de la Sota ('Nortasuna' filmearen zuzendaria), Juan Pablo Huércanos (Jorge Oteiza Museo Fundazioaren zuzendariordea) eta Leire Macazagak, Remigio Mendibururi buruzko doktorego tesia egiteko Eusko Jaurlaritzako bekaren onuradunak parte hartuko dutelarik. Azkenik, ostegunean 19.30etan Carlos Aurtenechek idatzi eta Felix Marañak argitaratutako "Acanto ciego (Remigio Mendiburu)" izeneko liburua aurkeztuko da, ondoren lunch bat eskainiko delarik.



Ezkerretik eskubira, Leire Macazaga, Aitor Kerejeta, Hutsune Mendiburu eta Xabier Gezala

Hilerriaren araudi berria onartu da



Hondarribiko hilerria

Hondarribiko Udal hilerriak, Domingotxoenea hilerriak, araudi berria dauka, urtarilaren 30eko Osoko Bilkuran onartu eta gero. Bertan, 6 kapitulu, 41 artikululu, xedapen gehigarria, xedapen iragankorra, azken xedapena eta xedapen indargabetzailea topatuko ditugu.

Araudi honetan beste askoren artean honako hauek arautzen dira: hilerriko zatiak, izan beharreko jokabidea, ordutegia, hilerriak, gurutzeak eta bestelako ehorzketa-ikurrak jartzeko baldintzak, Erregistro Publikoaren antolaketa, osasun eta hileta araudia, ehorzketak, desobiratzeak, hileta-eskubidea, eskualdatzeak, eta abar.

Araudi honek onartzeko prozedura jarraitzen du. Orain hasierako onespina eman zaio, eta alegazioak aurkeztu nahi dituzten interesatuentzat eta erantzuteko hilabeteko epea izango da, udalbatzak behin betiko onarpena eman baino lehen.

Lehen Alkateordea den Aitor Kerejetak adierazi zuenez, "hilerriaren administrazioa Udalarri dagokio, Zerbitzu Departamentuari, hain zuzen. Kasurik gehienetan, hilerriaren funtzionamenduak ez du arazo berezirik sortzen, baina noizean behin konpontzeko zailak diren arazoak sortzen dira, eta horren ondorioz beharrezkoa zen arautegi bat izatea. Kontuan izan behar dugu gai serio eta delikatuaz ari garela hizketan. Arazo larriak oso momentu zailetan gertatzen dira, adibidez familiako bat hiltzen denean, eta une horietan oso zaila izaten da konpontzea".

Kerejetaren hitzetan, "beste helburu batzuen artean, kontzesiodunek beren eskubide eta betebeharrak hasieratik ezagutzea nahi dugu eta horren arabera jokatzeko. Adibidez gorpuzkinak garbitzerakoan, hilobiko lekua agortzeaz dagoenean".

"Zentzuz antolatu eta arautu nahi da, kontzesiodunek beren eskubide eta betebeharrak era erraz eta argian ezagut ditzaten" amaitu zuen zinegotziak.

Seme alabak dituzten familientzako laguntzak BAZ-en eska daitezke

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen dekretua onartu berri du Eusko Jaurilaritzak. 2007ko Urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edo adoptatutako umeentzat egindako deialdia da. Udaletxearen beheko solairuan dagon BAZ-ean (Bezeroaren Arretarako Zerbitzuan) egin daiteke eskaria.

Dekretuak adierazten duenez, "eskatzailearen familia-unitatea osatuko dute hark berak, hark egun duen ezkontideak edo izatezko bikotekideak -halakorik badu-, bien edo bietako baten seme-alabek -naturalek zein adopzio-koek- eta adopzio-aurreko familia-harreraren hartutako adingabeek, beti ere eskatzailearen etxe berean bizi badira.

Lehen seme-alabengatik laguntza 400 eta 900 euro bitartekoa izango da. Bigarren seme edo alabagatik 1.100 euro emango dira semea edo alaba jaiotzen den urtean, eta 400 euro seme edo alabak urte bat betetzen duen urtean. Hirugarren eta hurrengo seme-alabengatik, berriz, 1.100 euro emango dira jaiotzen diren urtean, 1.100 euro urte bat, bi, hiru eta lau betetzen dituzten urteetan, eta 400 euro bost edo sei urte betetzen dituztenean.



Seme alabak dituzten familientzako laguntza desberdinak daude

Santa Ageda bezperan koplak kantatzen

Urtero bezala, aurten ere hainbat herritar Santa Ageda bezperan koplak kantatzera irten ziren. Zerbait urtetan ohitura galtzen ari zela bazirudien arren, azken aldian gero eta talde gehiago ikusten da kaletan zehar abesten.

Santa Ageda bezperako koplak kantatzeko ohiturak badu bere izaera herrialdeen eta tradizioen arabera. Bizkaian, esaterako, askoz errotuagoa ezagutu dugun ohitura dugu. Soldaduskara joatekoak ziren gazteek osatzen zuten zenbait herritan Santa Ageda korua. Hondarribian, kalez-kale aritzen dira kantatzen, eta argazkian ikus daitekeenez, Kanpandorrera ere igotzen da talde bat, ikuskizun apartaz gozatzeko aukera dutelarik.

Beste herri batzutan, Erreterian adibidez, baserriz-baserri kantatzen da dirua bildu eta afari on bat egiteko. Beste zenbaitetan jakineko premiei erantzuteko egin izan da diru eskea. Bestetan, berriz, tabernaz taberna, bertakoak gozatu, agurtuz, zirikatuz, giro baketsuan.



Jende asko igo zen Kanpandorrera Santa Ageda bezperaren egunean
Argazkia: Mikel Jauregi

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...

EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

BAKARRIK

3,58.-euro

foto FRANAN

Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Ortzipia sozietatea eratu da Hondarribiko aireportua sustatzeko

Urtarrilaren 22an, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia, Irun eta Hondarribiko udalek eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Ortzipia, SL sozietatea eratu zuten. Entitate berriaren gizarte helburua aireportua hobetzeko eta modernizatzeko nahiz sustatzeko ekintzak bultzatzea da, Gipuzkoako gizarte moderno, indartsu eta berritzaileak dituen beharrek bat datorren azpiegitura bat lortzeko asmoz. Ortzipia errealitate berri bat da, erakunde arteko lankidetzaren ondorioa, eta Jaizkibelgo korridorean egun dauden azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko eta modernizatzeko administrazioek egin duten erronkaren barruan kokatzen da, ezinbestekoak baitira gunearen eta Gipuzkoa osoaren etorkizunerako.

Elkarte berriaren egoitza soziala Gipuzkoako Ganberan kokatzen da. Sozietateak 110.000 euroko hasierako kapitala izango du eta honela banatuko dute: Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kapitalaren %35 jarriko du bakoitzak, Merkataritza Ganberak %15 eta udalek %5na, Sozietatea eratzeke lehen bileran Batzar Nagusiko honako kide hauek parte hartu zuten: Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak, Nuria Lopez de Guereñu Garraio eta Herri Lan sailburuak, Odon Elorza Donostiako alkateak, Jose Antonio Santano Irungo alkateak, Borja Jauregi Hondarribiko alkateak eta Jose María Etxarri Gipuzkoako Ganberako lehendakariak. Sozietatea eratu ondoren, 11 ordezkari osatutako Administrazio Kontseilua izendatu zuten: Eusko Jaurlaritzak hiru kide, Foru Aldundiak beste hiru, Ganberak bi eta udal bakoitzak bana.

Hondarribiko aireportua funtsezko azpiegitura da Gipuzkoako ekialdeko harreman eta ekonomia sisteman eta Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Garaiari zerbitzua ematen die. Bihar-etzietan zenbat eta zerbitzu hobeak eskaini, orduan eta onura handiagoak ekarriko dizkie inguruko.

Atalerreka araztegirako bisita gidatuak antolatu dira

Txingudiko Zerbitzuak enpresak Hondarribia eta Irunen dauzkan uraren kudeaketarekin loturiko enpresen bisitaldiak gaur hasiko dira eta datorren maiatzeararte astearte eta ostiraleko burutuko dira. Doakoak dira eta Lehen zein Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat zuzentzen dira, baita Batxilergoko ikasleentzat ere.

Ingurugiro arloan espezialduriko hezitzaile talde bat arduratuko da bisita gidatu hauetan, talde bakoitzak daukan eza-gupen mailara egokituko direlarik. Bisitaldiak euskaraz zein gazteleraz burutu daitezke. Gutxienez hamar lagunekoa izan beharko dira taldeak, eta gehienez jota berrogeikoak. Orain artean, 752 izan dira urria eta abendua bitartean instalazio hauetara hurbildu diren ikasleak.

Txingudiko Zerbitzuetatik lau bisita desberdin antolatzen dira. Lehenean Endara, ETAP eta Elordiko zentral txikia bisita daitezke, lau ordu eta erdi irauten duen bisitaldian. Bigarren, ETAP eta Elordi ikus daitezke, ia bi ordu irauten duen delarik. Hirugarren aukera, Hondarribian dagoen Atalerreka eta Hondartzako estazioa ikus daitezke, ia 3 ordu irauten dituen bisita delarik. Laugarren eta azken bisita, Atalerrekaren bisita da, era sakonago eta zehatzagoan azaltzen delarik dena. Bisita guztiak aurretiaz abisatu behar dira honako zenbaki honetan: 943 670 637.



Bisita gidatuak hiriko ikasleei zuzendu zaizkie



**BARR
ONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Martxoaren 31 arte merkealdiak dendetan

Pasa den urtarrilaren 8an, merkealdien garaia hasi da gure hiriko dendetan. Hiritarrak beti egoten gara erne ia noiz hasten den garai hau, geratzen zaigun aurreztutako diru kopurua ia non gasta dezakegun.

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak (EKA) azaldu duenez, 120 eta 150 euro inguru gastatuko ditu herritar bakoitzak.. Erakundeak gomendatu duenez, "arropa denboraldi honetakoa dela baieztatu beharra dago, eta ondo begiratu aurreko eta oraingo prezioa azaltzen den ala ez etiketan".

EKAk azaldu duenez, kalitaterik galtzen ez duten produktuak askoz ere merkeago lortzeko aukera paregabea da oraingoa. Honela, erakundeak "beharrezkoa dena" erosteko gomendioa egin du, bestela "luzaroan behar ez ditugun gauzak erosi izana garestiago atera dakiguke".

"Prezio merkealdia da eta ez kalitatearenak" gaineratu du erakundeak. Horrela, merketuta ageri diren produktuak dendan lehenago salgai egon behar izan dute, eta ezin dira egoera txarrean egon".

Honekin loturik, Euskara Batzordeak 2007ko aurrekontuetan, 2000 euro dauzka dendetako errotulazioak euskaratzeko.



Zenbait dendak iragarkiak euskaraz jartzen dituzte

Erdi Aroko Hirien Sarea finkatzea espero da



Bidasoa bailarako ordezkariak Madrilgo FITUR-en

Otsailaren 2an izan da FITUR-en (Madril) "Erdi Aroko Hirien Sarea" Biltzarra eta Hondarribiko Udala izan da buru, Bidasoa Bizirik erakundeak koordinatu du.

Biltzarburua Aitor kerejeta izan da, Hondarribiko Udaleko Alkateordea, ekimen honen sustazailea izan den hiriaren ordezkari izango delarik, sarean sartuta dauden gainontzeko hiriek baieztatu dute beren agerpena: Almazán (Soria), Laguardia (Araba), Estella- Lizarra (Nafarroa), Sos del Rey Católico (Zaragoza), Sigüenza (Guadalajara), Coria (Cáceres), Consuegra (Toledo) , y Olivenza (Badajoz).

Ekitaldian Pedraza (Segovia), Briones (La Rioja) eta Arévalo (Ávila), Udaletako ordezkariak ere bertan izango dira; berauek Sarean sartu nahi dutela adierazi dutelarik. Sarea Hondarribiko udalaren ekimenez sortu zen Bidasoa Bizirik erakundearen laguntzarekin. Bidasoa Bizirik erakundeak hain zuzen Sarearen jarduera koordinatu eta kudeatzen du, beronen Kontseilari Delegatua den Guillermo Echenique jauna biltzarrean egongo delarik.

Halaber, Donibane Garazi eta Olorongo udaletako ordezkariak gonbidatu dira, aldeztu aurretiko jarrera ona erakutsi baitute Europa mailan Sare bateko partaideak izateko, hondarribiko ekimenari esker eraikiko dena.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Salmenta solidarioa egingo da Egin Egon Tokin

Helduentzako topagunea den Egin Egon Tokin ekintza berria antolatu du Prebentzio Komunitario-ko Udal Zerbitzuak. Erabilitako liburuak euro batean saltzean datza ekimen hau, nahi duenak, erabiltzen ez dituen liburuak dohaintzan eman ditzake. Jasotako dirua solidaritateko proiektu batera bidaliko da (Avenir de L'Enfant izeneko elkarteak kudeatzen duen kaleko haurren etxe batera) laguntza gisa.

Ordutegia astelehenak 17:00etatik 19:00etara eta astearte eta ostegunak 10:00etatik 12:00etara, Hondarribiko Kale Nagusiko 7. zenbakian dagoen Egin Egon Toki gunean.

Hilabete bakoitzeko lehenengo astelehen eta astearteak izango dira, irekiera ordutegian, liburuak jasotzeko ezarri diren egunak. Gaur egun beste bi ekintza martxan jarraitzen dute: atzerritarrentzat erdarazko elkarrikketa talde bat, asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara, eta Javier Alkainekin tailer artistiko bat larunbatetan 10:00etatik 12:00etara.

Egin Egon Toki Hondarribiko biztanleak topatu eta erlazio-natzeko esparru bat da, ekimenak proposatu, biltzeko erabili, gauzak egiteko edo beste ekimen batzuk garatzeko plataforma bezala.

Informazio gehiago Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzura deitu 943 114000 telefonora.



Egin Egon Toki Kale Nagusian dago

Jaitzubiako nekazal bideetan bandalismo ekitaldiak egin dira

Otsailaren 19tik 20rako gatean, Jaitzubia auzoan dagoen Beko Errota baserriaren inguruan gauez zenbait bandalismo ekitaldi burutu ziren. Inguru horietan nekazal bideen birgaitzea burutzen ari da asteotan, Udaletxeko Nekazaritza departamentuaren kontu. Gauez, zenbait berebil itxita dauden bide hauetan sartu dira eta egindako lana pikutara bota.

Gregorio Berrotaran Nekazaritza departamentuko zinegotziak esan duenez "ez dakigu zerk bultzatzen duen denontzat onuragarriak diren lan hauek zapuztea. Gauez auto batzuk gora eta behera ibili dira egindako lana hondatuaz. Deialdi bat egin nahiko nuke horrelako gauzak errepika ez daitezen".

Une hauetan Udaletxetik bandalismo ekitaldi honen erantzuleak zeintzu izan diren ikertzen ari da gero beharrezkoak diren neurriak hartzeko.



Autoek gisa honetan utzi zuten errepedea



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Klink Elkarteak Caritas-en alde



Martin Iturbe parrokoa eta Joakin Zumeta, Klink Elkarteko presidentea

Iaz Klink Elkarteak "Pozezko Boteak eman" deituriko programa solidarioa hasi zuen. Elkartean bazkaldu eta afaltzen dutenek, kontua egiterakoan uzten duten kopuru gehigarria, botea hain zuzen, Elkartek berdindu egiten du eta lortzen duen kopurua ekintza solidario baten alde ematen du.

Pasatako urria, azaroa eta abenduan zehar 1.023,28 € lortu dira. Argazkian ikus daitekeen bezala, Klink Elkarteko presidente den Joakin Zumetak kopuru hori txeki batean eman zion Martin Iturbe jaunari, Hondarribiko Caritas-eko presidentea dena.

Klink elkartetik adierazi zaigunez, "Caritas elkarteari dagokio orain diru kopuru horrekin egokiena iruditzen zaiona egitea. Pena merezi du asmo hain ona duten elkarte hauek laguntzea, eta datorren hiru hilabetekoan ere antzeko zerbeit egiteko asmoa dugu. Zenbat eta bote gehiago utzi bazkideek, hainbat eta laguntza handiagoa eskaini ahal izango dugu".

XVIII. Herri Kanta Jaialdian parte hartzeko izena BAZ-en eman behar da

Udaleko Kultura Departamentuak XVII. Herri Kanta Jaialdia antolatu du. Maiatzaren 20an burutuko da, Gipuzkoa Plazan, baina bertan parte hartu nahi duten abesbatzek BAZ-en izena eman beharko dute apirilaren 23a baino lehen, taldearen izena, zenbat partaidek osatzen duten eta zuzendariaren telefonoa adieraziz.

Parte hartu ahal izateko, abesbatzek ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte:

Ahots berdinekoak edo mistoak izan litezke eta bertako kideak 16 urtez gorakoak izango dira, abesbatza bakoitza gutxienez zortzi kidez osatuko da eta talde bakoitzeko kideen % 80 gutxienez, hondarribiarrak izango dira, Hondarribian jaioak edo bertan bizi direnak.

Talde bakoitzak, jaialdian zehar bi kanta abestuko ditu eta zuzendarien artean aukeratu den beste herrikoi bat ere, zeina parte hartzen duten talde guztiek, ikusleekin batera, abestuko baitute. Bukatzeko "Agur Jaunak" kantatuko da. Era berean herri bazkariaren ondorengo jaialdian beste bi kanta kantatuko ditu. Kanta hauek ez dute derrigorrez jaialdian kantatu gabeak izan beharrik. Jarraian koruek herrian zehar ibili beharko dute kantuz.



Herri Kanta jaialdia Gipuzkoa plazan aurreko edizio batean

Aise
1971-1994

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Martxoan hasi daitezke arrantzaleen etxebizitzak eraikitzen



Etxebizitza hauek datozen hilabeteetan desagertuko dira

Bernat Etxepare kalean dauden arrantzaleen xaia eta etxebizitzak deagerpena hurbil dago. Pasatako urtarilaren 30eko Osoko Bilkuran behin betiko onespina jaso ondoren, badirudi martxoan hasiko direla lehen urratsak ematen.

Norberto Emazabel abade nagusiak esan bezala, "apirilerako makinak lanean hasiko dira, aurretik gauzak hustutzen hasi beharko dira. Hortik aurrera, orain xaiak dauden tokian Kofradiaren etxebizitzak eraikiko dira, eta orain arrantzaleak dauden etxebizitzetan, salmenta librean egiteko etxeak. Azken hauen salmentarekin prozesu osoa ordainduko da".

Denetara 105 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 56 orain bizi diren familiak bizitzeko izango direlarik, Kofradiari ordaindu beharreko alokairuan biziko direlarik.

Emazabel pozik ageri zen. "Guretzat oso akordio positiboa da, ezer ordaindu gabe etxebizitza berriak izango baititugu. Gauzak ongi badoaz, 2008ko udazkenerako arrantzaleen etxeak eraikita egotea espero dugu".

Hirugarren Adinekoen bizimodua aztertzen ari da Gizarte Zerbitzuetan

Gizarte Zerbitzuen departamentua Hirugarren Adineko pertsonei begira ikerketa bat burutzen ari da, berauen behar eta dependentziaren egoerarekin zerikusia duena. Txaro Berrotaran gizarte-laguntzaillea da lana burutuko duena, INEM-ek emandako dirulaguntza bati esker.



Ikerketa Gizarte Zerbitzuetan egiten da

Ikerketak gure nagusiek dauzkaten beharrak eta erakusten duten dependentzia beharra zenbatekoa den jakiteko asmoa dauka, ahal den neurrian artatu daitezkeen kasuei aurre eginez eta epe laburrean sor daitezkeen egoerak aurreikusiz.

Jarraitu beharreko metodologia elkarrekikoa da, alde batetik, galdeketa bat, hau aurrera emateko ezinbestekoa den lana eta etxeetan galderak egin, eta beste alde batetik, beharrezkoa den kasuetan informazioa eta orientazioa eskaintzea.

Hartzaileak bakarrik edo bikotearekin bizi diren 70 urtetik gorako hondarribiarrak izango dira, eta sei hilabeteko iraupena izango du.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia den Maite Pelaez-en hitzetan, "gure nagusiak zer nolako egoeratan bizi diren jakiteko ahalik eta ikerketa sakonena egin nahi dugu. Horretarako egokiena bere etxeetara joatea dela uste dugu, testak egin ahal izateko. Aukera honi etekina aterako diogu hartzaile hauei Udaletik beraiei zuzenduta dauden zerbitzu guztien berri emango diegu".

EXPERT

GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ALFONSO PEY GOMEZ

Guadalupe santutegiko kapilau berria



Arratsaldea da eta Amuteko Kaputxinoetan egin dugu hitzordua. Guadalupea deituz gero Amutetik bertatik jasotzen omen du deia, eta horri esker hitz egin ahal izan dugu berarekin. Teknologiaren aurrerapenak izaki. Gela apal batean sartu eta berogailuaren epeltasunean jardun gara hizketan iazko abuztuaz geroztik Guadalupeko kapilau den Alfonso Peyrekin. Honatx bere hitzak eta betetzen ari den misioari buruzko hausnarketak.

Ze harrera egin dizu jendeak?

Itxuraz ondo hartu naute, baina mezatara etortzen direnetatik inork oraindik ez dit bere iritzirik eman. Faltan sumatzen dut nigana etorri eta aizu, Alfonso, honako hau hobetu beharko zenuke, edo meza dotorea eman duzu, edo zure meza ez zait batere gustatu esatea. Horrek, egia esan, dezente harritzen nau. Ni aldare aurrean naizen bezala agertzen naiz. Junta bat badago eta bertan ere harrera hotza izan dut. Hemen meza ematen hasi nintzenetik bizpahiru hilabete iragan dira, eta ondo banago ere, apur bat "urrun" sentitzen naiz. Ni parrokietan ibilia naiz? Oartzunen, esaterako? eta argi ikusten da nortzuk dauden ados eta nortzuk ez, baina hemen ez zait hori gertatu. Junta aldetik ere ez dut babes pertsonalik aurkitu. Pena ematen dit hau guztia aitortu beharrak, baina leiala izan behar dut.

Oartzunen ibilia zarela aipatu duzu. Oartzunen jaioa al zara? Non barrena ibili zara meza ematen?

Ni jaiotzez nafarra naiz, baina betidanik Astigarragan bizi izan naiz. Parisen ikasi nuen eta bertan 12 urte pasa nituen etorkinekin. Gainerakoan, Behobian, Trintxerpen eta Oartzunen ibili naiz bikario gisa.

Apaiz bidea hartu zenuela aspaldi al da?

1972an apaiztu nintzen, argi neukan hartutako erabakiaz ez nintzela damu izango. Apaiz bezala ibili nintzen, gero ama hil zitzaidan Oartzunen eta fraile sartu nintzen. Harreman estua nuen Errenterian fraileekin eta orduan maitemindu nintzen mundu hone-taz.

Hondarribian fededun asko biltzen du Bederatziumrenak. Hemendik aurrera nor arduratuko da Bederatziumrenean goizeko 6etako meza emateaz? Don Martinek jarraituko al du?

Egia esan ez dakit.

Duela bizpahiru hilabete egin zizuten elkarritzetan Juan Jose Etxaide ordezkatzeara ardura berezia zela zenioen, eta airean zeundela oraindik, guztiz lur hartu gabe. Nola zaude orain?

Hara, nik aldarean ospakizuna besterik ez dut egiten. Niri konpromiso edo zama hau eman didate eta ahal bezain ondo betetzen saiatzen naiz, nahiz eta nire zereginean ez naizen guztiz aske sentitzen. Argi daukat misio bat betetzen ari naizela eta zoragarriena ezkongaeikin dudana harremana da.



Ainara Elizondo

Gero eta apaiz gutxiago dago, baina oraindik ere bada bide hori hartzen duenik. Ze aholku emango zenioke apaiztera doan gazteari?

Begira, ni, esaterako, ziur nago nire bokazioaz; maiteminduta nago hartutako bidearekin eta horrek erabateko disponibilitatea ematen dit batetik bestera ibili eta gauzak egiteko. Nire bokazioan oso zentratua nago eta hau da nire bizitza. Izugarri zoriontsu naiz kaputxino bezala. Garai batean ez zen ohikoa halako ikasketak izatea; gaur egun, ordea, apaiz izateko bidean daudenak ikasten ohituak daude eta asko karrera galtzarbean dutela aurkezten zaizkigu. Apaiztera doanak argi izan behar du apaizaren bizimodua oso berezia dela. Ezkontzari eta beste hamaika gauzari uko egin behar dio, norberak nahi ez duen parrokia hartu behar askotan... Guk ez dugu diru truke lan egiten, ofizio hau maite dugulako baizik.

Apaizaren bizimodua gogorra da, hortaz...

Zailtasun handiak ditu, bai, baina gure nortasunean darmaizkigu zailtasun horiek. Hutsuneak, iritsi ezinak... bizitza da, azken finean, horrelakoa. Bi leiho daude: gauza positiboak dagokiena bata, eta negatiboak dagokiena bestea.



Guadalupeko Santutegia gaur egun

Kontaiguzu, Alfonso, egun arrunt batean egiten duzuna

Normalki 6etan jaikitzen naiz, prestatu eta Irunera joaten naiz oinez meza ematera. Buelta autobusez egiten dut eta 8.30ean fraileon otoitza egiten dugu. Horixe izaten da normalean egiten dudana. Gerokoak egunaren edo ditudan konpromisoen arabera izaten dira; batzuetan bilerak izaten ditut (elizbarruti mailakoak edo maila erlijiosoak), beste batzuetan hitzaldiak, gogo-jardunak...

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxoak, Ogitarkekoak, Plater konbinatuak,
Eguneko menuak, Menua kartan

M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Euskaldunon antzinako sustraiak (II)



Martin Iturbe

Beti esan izan zitzaigun, gizakiak bazeramala bere barnean ZERBAIT edo NORBAIT haundiaganako eragiña. Eta Haundiagoa den horrek, harridurarekin batera beldurra ere sortzen zuela. Hori horrela izanik, zintzotasun-jokaera erabili beharra zen, Haundiagoa hori haserre ez zedin.

Dena den, Izadia eta bertako elementuak hartu izan ditu gizakiak, bizitzari oinarri-esanahia eman ahal izateko.

Gizaki euskaldunak ere, hala berean, Izadiaganako begirada oso sakoa izan du eta bertatik atera duen arnasbidea oso aberatsa.

Izadiko elementuetara begira nator, bada, gaurkoan ere.

Sakratuari forma bat ematerakoan, emakume irudia eman ohi dio, sarritan. Hauen artean, garrantzi bereizia du emakume irudiko izpiritu batek: MARI-k. Honen ingurumarian beste jainko, izpiritu eta maila txikiagoko pertsonaiak azaltzen direlarik.

Sakratuaren agerpena (hierofania) Naturako bitartekoe-tan soma ohi du lehen erlijio-gizon euskaldun honek: astroak, abereak, landareak...

Hau dela-ta, euskal erlijio zaharra, funtsean, kosmogonia bat dela (mundu honen ordenuaren zergatia) eta kosmologia bat dela (mundu honen funtzionamendua-ren azalpena) esan dezakegu. Horregatik, hain zuzen ere, ez zaio zail egin euskaldunari, beste erlijioen bat eta, batez ere, kristautasuna azaldu zenean, erlijio berri-ra egokitzea eta erlijio berriarekin simbiosi bat egitea.

ZERTAN ETA NOLA SOMA IZAN DU EUSKALDUNAK SAKRATAREN PRESENTZIA?

Aurreko honetan ikusi ahal izan ditugu aintziñako euskal erlijiotasunaren arrasto nagusiak. Orain dagokiguna zera da: hari nagusi horien detailea ezagutzea. Horretarako informazioa, hainbat eta hainbat esakun, ohitura edo jaitan aurki daiteke han hemenka. Horietako batzuk dira hemen agertuko ditugunak. Asko, zeharo kristautuak iritsi dira guregana, baina kristau margo honen azpian ikusi ahal izango da kristau erlijioa baino zaharragoa den beste erlijio-jokabide batzuren aztarna. Hona, hemen, beraz, denak ez badira ere, euskal erlijiotasun zaharraren aztarnarik nagusienak.

a) LURRA

J.M. Barandiaranek dioenez, euskal mitologia osoa lurretik hasten da eta lurrean bukatzen.

Lurra Ama da; AMA-LUR; bizidun gustien ama, horretatik bait datozkio gizonari bizia eta indarra eta horretara itzultzen da, berriro jaio nahirik bezala.

Gehiago oraindik: eguzkia eta ilargia ere lurraren alabak dira, haren sabeletik atera eta bertara itzultzen bait dira zeruko itzulia egin ondoren. Egun argia gizonarentzat eman zuen ama-lurrak, baina gaua arimentzat eta izpirituentzat eman zuen: hauei argi egiten die ilargiak.

Honekin loturik, lurra da baita izpirituen bizilekua ere: lurpeko zulo handietan bizi dira. Bide batez, lurrak bere barnean gizonak irrika ditzakeen bitxirik ederrenak gordetzen ditu (J.M. Barandiaranek dio nola uste honek bultza duen pertsona bat baino gehiago alferrikako gordailu-bilaketara, lan honetan trikuharri bat baino gehiago hondatuz).

(Jarraituko du)

Telmo eta Marcela Martinez hondarribiarrak ETBko Mihiluze saioan

Duela gutxi Hondarribiko bikote bat ikusi ahal izan dugu Euskal Telebistako 'Mihiluze' saioan. Telmo eta Marcela Martinez anai-arrebak, 27 eta 28 urtekoak, bost saiotan parte hartu dute, 1.060 euro irabaztea lortu dutelarik. Habilezia eta ezagupen sakonak dituztela erakutsi dute.

Kike Amonarriz eta Ilaski Serranok egunero ETB-1ean 21.15etan aurkeztzen dute programa arrakastatsu hau. Bertan parte hartu nahi duen edonork, 943 011780 telefonora dei dezake, edota mihiluze@eitb.com helbidera zuzendu.

Hondarribiarrak oso balorazio positiboa egiten dute Mihiluze programan izandako esperientziatziaz. "Oso polita izan da, hasieran pentsatzen genuena baina ederragoa" dio Marcelak. "Guk nahi genuena lehen egunean kanpoan ez geratzea zen, eta lehen egun horretan finalera heldu ginen. Azkenean bost egun iraun ditugu, eta oso esperientzia aberasgarria izan da".

Programara joatearen ideia biena izan zen, baina egoera desberdinetan. "Behin lagun batekin programa ikusten ari nintzela, joatea bururatu zitzaidan" dio Marcelak. "Baina nere laguna ez zen ausartu. Gero, gurasoen etxera bazkaltzera joan nintzen egun batean, anaia Telmok esan zidan ea joan nahi nuen. Horrela sortu zen dena".

Programa grabatu aurretik, zenbait froga burutu zizkieten. "Hasiera batean izena eman genuen, eta gero deitu egin zigutenean, ETBra joan ginen, eta han casting antzeko bat egin ziguten, nik uste euskara maila jakiteko zela. Arin-arin, egia-gezurra, mimika froga bat... dena kamara baten aurrean".

"Gero programa guk uste baina hobe joan zen eta bost egun iraun genituen. Oso ongi igaro genuen eta errepikatze moduko zerbait da, dudarik gabe" dio Marcelak.



Duela egun gutxi bi hondarribiar izan ditugu Euskal Telebistako 'Mihiluze' saioan. Maila bikaina erakutsi dute, eta bost egunez egon dira pantailan. Ez da marka makala!



Inoiz baina partehartze handiagoa inaute

Pasatako igandean Inauterietako ohiko desfilea ospatu zen Hondarribian. Nahiz eta aurreko egunetan eguraldi ona egin zuen, Inaute igandean goizetik euria agertu zen. Hala ere, jendetza handia hurbildu zen ibilbidera. 11.30etan hasi zen San Juan de Dios-eko biribilgunetik eta handik Sabin Arana, Beñat Etxepare, Matxin de Arzu eta San Pedro kalea gurutzatu ziren.

Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Ainhoa Izagirre, Leon Poplawski, Sandra Cuesta, Xabier Gezala - Kultura zinegotzia eta Marilis Goñi - idazkaria.

Garaileak honako hauek izan ziren:

Karrozak

1. La Precesión
2. Los Pekepiratas
3. La Salle San Marcial
4. Amute-Kosta
5. Carlos Zapirain
6. AMPA El Pilar
7. APA San Vicente Paul
8. Toxic
9. Dantzaka

16 lagunetik 50 bitarteko konpartsak:

1. Amute-Kosta
2. Beti Gazte
3. Dantzaka
4. APA San Vicente Paul
5. AMPA El Pilar

51 lagunetik 100 bitarteko konpartsak:

1. Kuki
3. La Precesión
9. AMPA La Salle San Marcial
4. Fantastic

100 lagun baino gehiagoko konpartsak:

1. Pilar Peña
2. Carlos Zapirain
3. Toxic

7 lagunetik 14 bitarteko taldeak:

1. Lagun artean

Bakarkakoak:

1. Arantza Izagirre - Ur botila
2. Jóvenes en moto
3. Oscar Silanes - Cruz Roja
4. Alfonso Isuskiza - Pareja con carro y sombrilla
5. Cama de hospital



Inauterietako lehiaketa desberdinetan garaile irten direnak Zuloaga Etxean jaso zuten saria. Behean, karrozetan garaile irten zen 'La Precesión', Inauterietako klasiko bat.



Inauteriak 2007



Goiko irudian, banakakoen lehiaketan lehen saria irabazi zuen Arantxa Izagirre eta "Botella de agua" izeneko bere jantzia. Behean, Zuloaga Etxean erakusten diren Kartel Lehiaketan parte hartu duten kartelen irudi bat.



Goian, taldeen mailan lehen saria jaso zuen 'Lagun Arteak' taldea. Grazi handiarekin, ikusleen irrifarreak sortu zituzten ibilbide osoan.



Adin guztietako pertsonak parte hartzen dute Inauterietako desfilean



Argazkiak: Xabier Sagarzazu eta Floren Portu

Partehartze handia eman da Txiste Grafiko Lehiaketan

15. edizioa ezagutu du aurten Euskal Txiste Grafikoen Lehiaketak. Guztira 218 lan aurkeztu dira, A Mailan 2, B Mailan 25 eta D Mailan 191. Lehiaketa honen helburu nagusia umorea euskaraz egitea da, baina sariak emateko orduan kontuan hartzen dira marrazkiaren kalitatea, originaltasuna, umorea eta hizkuntzaren zuzentasuna. Epaimahaikideak honako hauek izan ziren: Antton Olariaga Iñaki Arzak eta Aiert Alonso.

Sari banaketa ekitaldia Udaletxeko Areto Nagusian burutu zen eta bertan izan zen Asisko Urmeneta, haurren umorea eta imaginazioa nolakoa den ikusi ahal izan zuelarik.

SARITUAK:

A MAILAN: Lehen saria eman gabe utzi da eta 2 bigarren sari eman dira

-ENEKO AZPILLAGA CUEVAS
-IÑIGO IBARGOIEEN HERAS
Hauetako bakoitzak 200 euro jasoko ditu

B MAILAN:

1.SARIA: MIKEL BARANDIARAN (150 euro eta liburu bilduma)

BI BIGARREN SARI :

-NAROA GIMENEZ CAMINO
-MARTIN UNZUETA
Hauetako bakoitzak 60 euro eta liburu bilduma

D MAILAN

6 sari berdinarik :
-IRATI ARRUABARRENA
-AMAIA HURTADO
-EKAIN PASKUAL
-MARTXEL EIZAGIRRE
-MIKEL IZA
-ANDRES REYES



Garaileak, epaimahaiko kideekin eta Euskara departamentuko erantzuleekin batera.



Asisko Urmenetak sari banaketa ekitaldia alaitu zuen. Haurrek eta gurasoek eguerdi ederra pasa zuten Udaletxeko Areto Nagusian.



Arraun Elkarteak 2006ko Euskal Herriko talde onena izendatu du Eusko Jaurlaritzak

Hondarribia Arraun Elkarteak zorionez dago. Datozen egunetan Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Euskadi Kirol Saria jasoko du, Euskal Herriko kirol talde onenari zuzendutakoa hain zuten. Sari hau Bruesa Gipuzkoa Basket saskibaloitaldearekin batera jasoko du.

XXVII. Euskadi Kirol sariak eragile, bultzatzaile eta akuilu izatea dute bokazio. Helburu nagusia, berriz, kirol alor zabalean kalitatea eta eredugarritasuna bultzatzea, euskal kirolarentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere eredu diren jarduerak nabarmenaraziz eta kalitatezko erreferentzia bihurtzen lagunduz.

"Hain zuzen ere helburu nagusi horien argitan eta oinarrietan zehaztutako irizpideei jarraiki egin du epaimahaiak lana eta hartu ditu erabakiak" esan digute Jaurlaritzatik. "Zentzu horretan Hondarribia Arraun Elkarteak lan bikaina egiten du".

Ez da euskal erakundeetatik Joxemi Elduayene zuzentzen duten elkarteak jaso duen lehen saria, Foru Aldundiak ere Kiroltasunaren saria eman baitzion berriki. Iaz, Gipuzkoako kirol talderik onena izendatu zuen Aldundiak.



Arraun Elkarteak sari ugari biltzen ari da

Hondarribiko musikariak Errege Kopako finalean



Abiyuan-eko kideak saskibaloitartida hasi aurretik

Abiyuan-Truck Diskoteka fanfarrea Malagan izan da duela aste gutxi, Espainiako Saskibaloiko Errege Koparen finalerdiak eta finala alaitzen. Sortu zenetik, fanfarre honen ibilbidea eta gorakada etengabekoa da.

Bere hastapenetatik, Ama Guadalupekoa traineruak lortutako garaipenak alaitzen ditu, baina iazko arraun denboraldian, TKE Ligak txaranga ofiziala bezala izendatu zuen eta hala ibili zen 2006ko udan, Gipuzkoako estropada guztietan eta Bizkaiko beste zenbaitetan.

Arrauneko TKE Liga eta Espainiako ACB saskibaloikoak babesle berdina dutenez (San Miguel), ekitaldi handi honetara joateko aukera izan dute hondarribiarrek. Orain artean egiten ari diren lan onaren seinale.



eukeni
optika

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitzemota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire nire lentillak
betaurrekoak Focus DAILIES



CIBA
Vision

Satarka "A" maila 1.saria

Lumari idazten utziz

Erretratua

Hormaren aldapa zurian,
lauki betearen erdian
eten da denboraren melodia.

Mugimenduz odolustua, olio azarastua,
bizi beharraz ahaztua.

Erretratua irudiaren gartzela da.

Altzari eta artearen alaba,
zirrara baten taupada, iraganaren aldaba.

HIRI BATEAN GALDUTA...

Errorrik gabeko zutabe argitsuek
marraztu dute zuhaitz gabeko paisaia;
non da zelaien muskerra, non bizimodu lasaia?

Garrasien oihartzuna, etsipenaren aingura,
arimaren arrangura.

Kale bidez mamitzen den hezurdura.

Suziri etzanen abiadura, kutsadura.
Naturaren azken muga.

Zeruaren gris ustela lur idorraren egarri,
belar hezeen aldarri, bizi nahiaren ezlarri.
Eguzki printzen miresle sutsu, trumoi-tximisten zintzarri.

Larre guriko antxumea otsoak irentsi ahala,
galipotak estali du gurgilbideen azala
tatuatu berria den larru leuna bezala.

Hiriaren politikak gizentzen dituen patrikak
senda ditzala botikak



Aina Elizondo

ZURE ITZALA

Gauren errezela eguzkiaren oihal
bihurtzen denetan,
zure musuen ordezkia alkohola ihesi
nire ezpainenetan.

Negarraren putzula nahigabearen erreka,
olatuen irrika, itsasoaren fereka.
Amilka nire masailetan korrika
milaka euri txingarren desoreka.

Zure itzala, iluntasunaren kristala.
Malko jausien erreka, oinazearen arrastoa,
bihotz iharraren ezpala.

Eta bi anpolai hezeren tristura eta kasketa.
Eta ilundutako kopeta.

Eta adio lehorra nostalgiaz beteta.
Eta "banoa, zu maitatzeari aspaldi utzi diot eta",
gaitz guztientzat balio duen errezeta.

Besterik ez zait geratu zure itzala baino.

Zure itzala eta maitasunaren hutsunea,
ekarri galdu genio begirunea,
betiko joan zineneko unea.

Gauaren kaiola bihotzaren hesi,
bakardadearen gezi,
samin-arbolaren gerezi, sufrimenduaren gazi.

Maiteminez bizitzea ez du askorik merezi



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

@ bildua

Hizkien akropolian iltzatuta zauden adiskide,
burdinbiderik estaltzen ez duzun trena;
ezkerretara eseria zauden ahalguztidun hori,
behutzen hizkuntzaz gauzatzen zarena.

Informazio uholdearen itsasgoran
bultzatu ohi nauzu edonora.

Barraskilo bildua, zeinu kiribildua,
zenbat mega, jiga higitzen ote dira
zuri begira?

Norabait, zenbat kilobait?

Munduaren leihoko maratila;
jakintzaren ateko kisketa.

Ez zenbaki, ez letra.

Lekutik mugituko ez den
bidaiaariaren maleta.

Zeure txikian, handitasuna duzu gordeta.

Zeinu soila zaren arren,
zure amuan jausi gara eta.



Bi bihotz

Isiltasunaren erreinuan
sortu zinen itxaropen errainu;
erdi egia, erdi gezur,
erdi amets, erdi engainu.

Ilusiozko haran emankorrean
ereindako bizi izpi;
nire errailetako sumendi gori,
maitasunaren fruitu jori,
abendua gaueko eguzki.

Zure taupadak entzun nituen,
sentitu zure bihotza ;
hilabeteko lore ederrak
igortzen duen poz-hotsa.

Sehaska, berriz, jantzia nizun
jostailuz eta kolorez,
baina denborak suntsitu zuen
tristuraz eta dolorez.

Zure panpinak maitatu ditut
zu zeu bazina bezala,
eta orduan barneratu zait
oinazearen ezpala.

Iturri baten jario goiztiarrak
dakar zure herioa;
erbestearen samina, amatasunari adioa.

GAZTAROA, ZAHARTZAROA


Azal tolestua, elur urtua,
adinaren zama eta balazta.
Udaberriaren loratze lotsagabeak
neguaren bihotzean harramazka.

Urteen aurkako erronka
denboraren greba, gerra, borroka.
Erloju baten orratz herdoilduak
gaztetasun gosez, eskarmentuz ezin ase
gaztarora itzuli nahian orroka.

Mugimenduaren eztanda eta parranda,
hiperbolea eta kolorea;
maitatzaren urre gorritzko alaitasuna
zaharraren hortz artean gordea.

Heriotzaren ikara, bizi nahiaren zirrara;
goizaldeko ihintza, urteen ilunabarra.
Marinelaren azken kaia: haserre eta negarra;
bertan aurkitzen du bere salbamen bakarra.


Bakardadearen girgilua,
ezinduaren eguneroko katilua;
zahartzaroaren mailu eta zigilua.



kai zahar
pub
almirante alonso, 12

kai zahar

truck
diskoteka
foru kalea, 13



kaialde



jatetxea · restaurante
erretegia · asador
itsasargi 8 · 20280 · hondarribia
tel. fax 943 644 622 · kaialde@yahoo.es

Itsasertza eta Baratza proiektuek aurrera jarraitzen dute



Aurreko urteetan bezala, **Prebentzio Komunitarioaren Udal Zerbitzuak** hainbat enplegu sustapen kudeatzen ditu. Sustapen hauek **SPEE**-k finantzatzen ditu (lehenengo INEM) Hondarribiko **Udalak** eta "INEM-Corporaciones locales" izeneko programaren bitartez.

Aurten lau hilabetetan zehar 14 pertsona kontratatu dira, egunean 4 orduz, ondoren zehazten diren proiektu ezberdinetan:

Baratza Komunitarioa Botika baserriaren inguruan dago

1) Itsasertza VIII.

Oraingo honetan bederatzigarren urtea da jarraian proiektu hau garatzen dena. Lan-taldea hezitzaile 1 eta 5 langilek osatzen dute (azken hauek gizonezkoak), urriaren erdialdetik gaurdaino Hondarribiko hainbat esparrutan hondakinak jasotzen dituzte eta esparru ezberdinak egokitzen dituzte; espigoia, farola, Guadalupe, Jaizkibel, senaia eta erreka batzuk.

2) Baratza II.

2005eko azarotik aurrera Baratza Komunitarioa martxan jarri zen, Hondarribiko hiritarrentzat topagune bat izanik. Oinarritzko mantentzea boluntarioek egiten dute, prebentzio komunitarioaren udal zerbitzuko langileen laguntzarekin.

Baina Baratza Komunitarioak hobekuntzak behar zituen. Hortik jaio zen enplegu sustapen hau. Lan-taldea guztira 6 emakumek osatzen dute, 5 langile eta hezitzaile 1.

Proiektu honetan burutzen ari diren betebeharrak, nekazal ekoizpena mantentzea (lurra prestatu eta berriz diseinatu, erein, landatu, uztatu, hazitegia mantendu), apainketa elementuak egin eta kokatu (mahai eta eserlekuak, hesiak, txorimaloa, kartelak) eta baratza komunitarioa sustatu.

Otsaila arte, Hondarribiko ikastetxeetako lehen hezikuntzako 800 ikasle inguruk bisitatu dute Baratza Komunitarioa. Baratza II-ko langileak dira ikasleei nekazaritza erakusten dietenak.

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA
Telf.: 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

3) Kirola eta suspertzaile soziokulturalak

Abenduan beste bi enplegu sustapen hasi ziren, bertan bi emakume kontratatu direlarik.

Bi sustapenetako batek Egin Egon Toki topagunearen barne burutzen ditu bere eginbeharrak. Denboraren banku bat egiten saiatzen ari da, Egin Egon Toki-ko ekintzak dinamizatzen dituen bitartean.

(Topagune hau Kale Nagusiko 7. zenbakian dago eta Hondarribiko hiritarren ekarpenei irekita dagoela gogorarazten dugu. Momentu honetan, Javier Alkainek dina-

mizatutako tailer artistiko bat, gaztelera eta euskarazko elkarriketa taldeak eta Baratza Komunitarioa martxan daudelarik.)

Beste enplegu sustapenak Mendelu auzoan garatzen ditu bere ekintzak batez ere. Ikas-jolas-ekin jarraitzen du; Eguzki gizarte gunean lau urte daraman eskola laguntza eta aisialdi osasuntsu proiektu bat da. Gainera, Saindua gaztelekuan animaziozko ekintza puntualetan parte hartzen du.

Bi langile hauei martxo bukaeran amaituko zaie beraien kontratua.

Enplegu sustapena	Hasiera	Bukaera	Eginbeharrak	Kontratututako pertsonak
Itsasertza VIII	2006 Urria-16	2007 Otsaila-15	Hondakinak jaso eta esparruak egokitu.	6 pertsona: 5 gizon emakume 1
Baratza II	2006 Urria-16	2007 Otsaila-15	Nekazal ekoizpena eta Baratza Komunitarioaren sustapena eta nekazaritza.	6 pertsona: 6 emakume
Kirola eta suspertzaile soziokulturala	2006 Abendua-1	2007 Martxoa-30	Egin Egon Toki eta Ikas Jolas-eko dinamizazioa.	2 pertsona: 2 emakume
3 enplegu sustapen	Enplegu sustapen hauek, enplegua bilatzeko aukera gutxiago duten kolektiboek zuzentzen zaie (denbora luzeko langabetuak eta emakumeak).			14 pertsona: 9 emakume + 5 gizon

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Emakumeei bere enpresak eratzen laguntzeko sortu da "Gertu"

"Gertu" Eguneroko merkatua sortuz proiektua duela gutxi aurkeztu zen bailaran. Bidasoa Bizirik-ek kudeatuta, Hondarribiko Udala bertan dagoelarik, Gertu programa, hamabi entitate publikok eta pribatuk bultzatua da.

Helburua, emakumeei euren enpresak eratu ditzaten laguntzea da, trebakuntza bikoitza eskainiz: alde batetik, eremuen ezaguera espezifikoetan, hala nola, haurtzaintzan, adinekoren eta gaixoen zaintzan edo eskola-laguntzan: eguneroko bizitzako zerbitzuak esaten zaie horiei. Bestetik, enpresak kudeatzeko trebakuntza eta norberaren garapena. Emaizak, dagoeneko, itxura hartzen hasiak dira.

Hain zuzen, "Gertu" Eguneroko merkatua sortuz proiektuak, Europako Equal Ekinmenaren barruan, enpresak sortzeko prozesua irekitzen du, alde batetik enpresak sortu eta sendotzeko beharrezkoak diren tresnak sortuz, eta beste batetik Eguneroko Bizitzako Zerbitzuen (EBZ) eremuan enpresak sortzeko aukera berriak identifikatu eta ustiatu.

emakume igaro dira aholkularitza-fasetik; eta, oraintxe bertan, dagoeneko, enpresa bat dago martxan, eta bi gehiago eratuko dira aurki.

Informazio gehiagorako, www.equal-gertu.com webgunean begira daiteke.



Gertu programa emakumeei zuzenduta zaio

154 lagun izan ziren iazko otsailean, apirilean eta irailean, programako hitzaldien hiru txandetan. Hortik, enpresari ekiteko interesa zuten 42 lagun hautatu zituzten, trebakuntza-ikastaroak egiteko. Azkenean, 18 proiektu eta horiek sustatzen dituzten 25



Programaren aurkezpena Bidasoa Bizirik-en egoitzan egin zen. Beste zenbaiten artean Aitor Kerejeta, Bidasoa Bizirik-eko presidente-ordeak hitz egin zuen, tankera honetako ekimenek duten garrantzia goraipatuz.

Haurraren nutrizioa eta elikadura

Haurra, urtebete betetzen duenetik, familiaren elikatzeke ohiturak hartzen hasten da pixkanaka. Orduantxe hasten da elikagai batzuekiko zaletasuna eta higuina sentitzen, gutuziak izaten. Eta, horrela, elikagai mota bakar bateko dietak egiteko eta behar dituen gainerako nutrienteen aldetik gabeziak izateko arriskua sortzen da. Horregatik, dieta osatzen duten elikagaiei dagokienez aniztasuna izateko ahaleginak egin behar ditugu. Haurrak gutxienez 500 ml esne edo esneki, irinak, fruitak, barazkiak, eltzekariak, haragia eta arraina hartu behar ditu.

Haurraren hazkuntza, urtebete betetzen duenetik aurrera, moteltzen hasten da. Lehendabiziko urtean 24 cm inguru hazten da, bigarren urtean 12, hirugarren urtean 10, eta laugarrenetik aurrera 5-6, eta horrela haziko da eskola adinean dagoen bitartean. Horregatik izaten dute garai honetan hain apetitu gutxi, eta elikagaiekiko interes txikia. Gerora, nerabezaroan sartu baino pixka bat lehenago, gehiago moteltzen da hazkuntzaren abiadura. 7 eta 11 urte bitarte-

an, jarduera intelektual eta fisikoa handitu egiten denez, kaloria gehiago behar ditu gazteak, eta, ondorioz, elikagai gehiago kontsumitzeko beharra sentitzen du.

Bukatzeko, aipamen labur bat egin nahiko nieke elikatzeke dauden beste mota batzuei, gaur egun gero eta gehiago baitira elikadura tradizionaletik kanpoko motaren bat aukatzen dutenak (begetarianoa, makrobiotikoa, etab.), hainbat arrazoi direla medio (erlijiosoak, ekologikoak, filosofikoak, etab.).

Elikadura tradizionaletik kanpokoan artean ohikoena, begetarianoa dugu, dietatik haragi eta arraina baztertzen dituen. Bada honen barruan mota bat, obolaktobegetarianoa, dietaren barruan arrautzak eta esnekiak onartzen dituen, baina badira begetariano zorrotzak ere, abere jatorria duen produktu bat bera ere kontsumitzen ez dutenak. Elikadura begetariano zorrotza ez da haurrentzat egokia; izan ere, proteina gutxi ematen ditu, eta hazkunde azkarreko fasean dauden haurrek proteinen behar handia daukate. Gainera, litekeena denez dieta honekin haurrek B12 bitamina, burdina, kaltzioa -esnerik zein esnekirik hartzen ez badute bakarrik- eta zinka behar baino gutxiago jasotzea, kontrolak egitea gomendatzen da, neurri egokian izan ditzaten dagozkien osagarriak emateko.



Ofertas Eskaintzak

- Aloe Vera Xanpu 200ml: 13,25€
2 unitate %20
- OATLY olo esnea 1l: 1,95 €
6+1 dohainik edo 12+2 dohainik
- SHIITAKE pate begetala: 3,20€
2 unitate %30
- LIMA txokolatezko batidoa 200ml:
1,10€ - 2 + 1 dohainik
- QI Te berdea mentarekin: 3,65€
2 unitate % 30
- ROBIS erregina-jele 1800mg: 18,88 €
2 unitate %20 edo 2+1 dohainik

.Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizutzen hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismora arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarratasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel Karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die gutziet.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimezez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzea gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarela, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



BERRIAK



2007-2008 Urteko Port-Aventurako Lan Eskaintza

Arlo desberdinetako 400 postu eskaintzen ditu: ostalaritza eta turismoa, beste postu teknikoak eta postu laguntzaileak.

Prestakuntza enpresak antolatzen du eta lana martxotik urtarrilara iraungo du, 6-9 hilabeteak edo denboraldi laburretan (udara, aste santua,...).

Anímatu zaitez eta bidali curriculum-a!

Informazio gahiago eskuratzeko:
www.portaventura.es orrialdean
902197682 telefonoan
Gazte Informazio Bulegoan

DISEINU LEHIAKETA

INJUVE-k antolatutako lehiaketarako bost diseinu motako lanak eta proiektuak aurkeztu daitezke: grafikoak, industrialak, barnekoak, digitalak eta modakoak.

Epea: apirilak 10.

Informazio gehiago: <http://www.mtas.es/injuve/cultura> orrialdean edo GIBen.

Ordenagailua lortu intereserik ordaindu gabe!

Intereserik gabeko maileguak dira eta horien bitartez aukera izango duzu bai ordenagailua erosteko, bai interneten banda luzean konektatzeko.

EPEA: 2007ko abuztuaren 31an.

Informazio gehiago:
<http://www.mityc.es/CiudadaniaDigital> orrialdean.




Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein da eraikin honen funtzioa ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Martxoko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Ortzi Alonso Murelaga**. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den etxea garai batean ikastetxe bat izan zen, 'Escuelas Martínez Anido' bezala ezagutzen zena.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Herriko toki berezi batean dagoen eraikin baten inguruan galdetzen dizuegu. Guztiok badakigu non dagoen etxe hori, handik askotan igarotakoak gara eta. Hala ere, bere funtzioa zein den galdetzen dizuegu.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, martxoaren 12a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



Gosariak
Eguneko menuak:
4 sarrerako
4 bigarren platera
Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
Telf. 943 645 597
20280 HONDARRIBIA

eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauez, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Goxo denda

Minasoroeta kalea **XX. mende hasieran**



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Kasu honetan Hondarribia 800-en inguruan argitaratu zen liburu bat baliatu nahi izan dugu irudi eder bat argitaratzeko. 'Hondarribia Iruditan', 2004ko otsailean Euskadiko Kutxak argitaratu eta Udalak egindakoa liburuko 239. orrialdean dator.

Minasoroeta kalea da, ezkerraldean begia jartzen badugu, tranbiaren bideak ikus daitezke, hori dela eta XIX. mende amaierakoa edo XX. mende hasierakoa dela ondoriozta dezakegu.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzue.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Urtarrila2007

JAIOTZAK

2an: JUNE Garate Elzo, Irungo Juan Manuel eta Hondarribiko Eiderren alaba.

5ean: IONE Andres Perez, Irungo Roberto eta Donostiako Elenaren alaba.

5ean: URKO Clemente Indo, Donostiako Jose Miguel eta Hondarribiko Olgaren semea.

8an: NAHIA Uranga Salas, Hondarribiko Iban eta Hondarribiko Maitaneren alaba.

9an: AMAIA Olaizola Idiakez, Donostiako Gorka eta Donostiako Miren Bakareren alaba.

10ean: ANDER Martin Amador, Salamanca-ko Alvaro eta Hondarribiko Izaroren semea.

11n: UXUE Lazkanotegi Urkizu, Donostiako Mikel eta Hondarribiko Aitziberen alaba.

13an: ANAITZ Pardavila Tumas, Hondarribiko Borja eta Hondarribiko Idoiaren semea.

15ean: LUCIA Galarza Iturriza, Hondarribiko Alfonso eta Donostiako Ioanaren alaba.

16an: AMAIA Espinosa Cuadros, Ecuador-eko Yobin Fabricio eta Ecuador-eko Jina Marisolaren alaba.

18an: ZERU Espinosa Batros, Cordobako Juan Manuel eta Barranquilla-ko (Colombia) Cielo del Socorroaren alaba.

20an: LIDE Baranda Mitxeo, Donostiako Ismael eta Irungo Ioneren alaba.

25ean: ARAIA Villanueva Portu, Burgoseko Luis Antonio eta Hondarribiko Itziaren alaba.

25ean: NAGITZ Esuain Calvo, Hondarribiko Bernardo eta Hondarribiko Idoiaren alaba.

31n: IRATI Zelaia Amunarriz, Irungo Ignacio eta Hondarribiko Maria Argiaren alaba.



EZKONTZAK



27an: JUAN IGNACIO Tamayo Agirre, Donostiakoa, eta **ANA MARIA Ortega Gomez**, Irungoa

HERIOTZAK

2an: MARIA JOSEFA Sagarzazu Olazabal, Hondarribikoa, 73 urte, Puntalean.

9an: IGNACIO Arroyo Olosa, Hondarribikoa, 70 urte, Alderdi Eder etxean.

13an: ALVARO Sanz Saenz de Urturi, 3 egun, Ramon Iribarren kalean.

14an: MELCHOR Etxaide Iridoi, Hondarribikoa, 89 urte, Santa Engrazia kalean.

16an: DOMINGO Alkain Berra, Hondarribikoa, 86 urte, Matxin de Artzu kalean.

17an: MAITE Aritzaga Errazkin, Hondarribikoa, 49 urte, Kosta kalean.

18an: MARIA LUISA Agueda Urtizberea, Hondarribikoa, 93 urte, Almirante Alonso kalean.

18an: ANA Bonel Gomez, Borja-koa (Zaragoza), 81 urte, Gibeleta etxadian.

21ean: PEDRO Ugarte Zabala, Hondarribikoa, 63 urte, Juan Laborda kalean.

24an: RAMON Roteta Bakeriza, Donostikoa, 79 urte, Ama Guadalupe etxadian.

27an: ISIDRO Indo Alkorta, Donibane Lohitzungoa, 95 urte, Itsasargi kalean.

27an: MARIA LUISA Rueda de la Rosa, Valladolid-eko, 80 urte, Amute kalean.

28an: RAMON Martinez Agirre, Hondarribikoa, 63 urte, Jaizkibel Etorbidean.

30ean: SEBASTIAN Salaberria Salaberria, Hondarribikoa, 60 urte, Puntalean.



URTARRILEKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	23,6° C, hilaren 18an.
Temperaturarik beherena:	-4,5° C, hilaren 27an.
Bataz besteko tenperatura:	9,5° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 77
Euri-litroen kopurua:	111,5 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 22an 30,2 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 23ko 10,56tan, 8,4 litro.
Egun euritsuak:	14 egun.
Elur egunak:	1 egun
Kazkabar egunak:	2 egun
Ekaitz egunak:	2 egun
Behe-laino egunak:	1 egun
Ihintz egunak:	9 egun
Eguzki kopurua:	79,6 ordu
Bataz besteko presioa:	1025,8 milibar
Presiorik gorena:	1040,8 milibar, hilaren 2an
Presiorik beherena:	1001,4 milibar, hilaren 25ean
Haizea >55 Km/ord.	1 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 23ko 6,20tan, 59 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN URTARRILAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 3.674,60 kilo.
Lanpo (Euthynnus pelamis): 14,40 kilo.
Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 3,20 kilo.
Boga (Boops boops): 430,50 kilo.
Zarakuntza (Oblada Melanura): 28.165,50 kilo.
Erla (Lithognathus mormirus): 9.261,50 kilo.
Korrokoi (Chelon Labrosus): 604,80 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 4.805,70 kilo.
Bestelakoak: 817,30 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URTARRILAN

Altak: Jaiotzak: 15, eta kanpotik etorriak: 46
Bajak: Hildakoak: 14, eta herritik joanak: 43
Biztanle kopuru orokorra: 16.404 bizilagun.

URTARRILAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 376 euskaraz, 1195 gaztelaniaz eta 20 bestelakoak. Guztira: 1591 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 26 euskaraz, 63 gaztelaniaz eta 1 bestelakoak. Guztira: 90 liburu.

Bazkide berriak: 11 gizon eta 12 emakume. Horietatik 14 heldu eta 9 haur. Guztira 23.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: GLORI, Debi.- Ametz magikoa.- Ttartalo.
Gaztelaniaz: TAKAYA, Natsuki. -Fruits Baskets.- Norma.

Helduak:

Euskeraz: XAMAR.-Euskera jendea. - Pamiela.
Gaztelaniaz: FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Joski

**. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA**

Hurrengo irekiera: Matxin de Artzu kalean, 18 zenbakian

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA






URTE
25
ANOS

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



Argazkia: "Argazkiak, Hondarribia atzo"
Jose María Castillo

www.doble-a.com



Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak